



**Arartekoaren ebazpena, 2010eko ekainaren 30ekoa. Horren bidez, Bidegoiango Udalari gomendatzen zaio bide baten erabilerari buruzko ikerketa-espedientea artxiba dezan.**

### Aurrekariak

1. 2009ko urriaren 5ean (...) jaunak erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen ez baitzegoen ados (...) baserritik eta GI-3720 errepidetik (aurrerantzean, bidea) igarotzen den bideari buruzko ikerketa-espedientearekin.

Kexak hizpide zituen kontuak zehazte aldera, egokia da jarraian aipatuko diren izapideak eta inguruabarrak aintzat hartzea. Izapide eta inguruabarrok kronologia-ordenan azalduko dira, errazago uler daitezten.

2. 2008ko irailaren 17ko udal idazkariaren txosten juridikoa. Bertan, adierazi da Bidegoiango Udalak bidearen izaera publikoa edo pribatua zehaztu edo argitu nahi duela, erreklamatzailerean auzokoek egindako kontsultaren aurrean. Aipatu auzokoei bidearen tarte hori erabiltzea ukatu zitzaien.
3. (...) jaunak, 2008ko urriaren 22an, lur-jausien ondotik eragindako bidea konpontzeko lanak egiteko baimena eskatu zuen, hain zuzen, eusteko harri-lubeta bat eginez; bideak zuen izaera pribatua jasota utzita.
4. Eskaera horri erantzunez, 2009ko urtarrilaren 26ko alkatetza dekretuaren bitartez bidea konpontzeko eskaeraren izapidea etetea ebatzi zen, jabari publikoari eragin ahal baitzion, eskatzailearen bi auzokoek egindako kontsulten arabera (auzoko horiek bidea erabiltzen dute eta erreklamatzailereak, antza, tarte hori erabiltzea ukatu die), bidearen izaera pribatuari edo publikoari dagokionez.

Horrez gain, ebazpenari jarraiki, interesdunak lizentziak hizpide duen errepidetako tartearen titulartasuna egiaztatzekeo agiriak aurkeztu behar ditu.

5. Interesdunak 2009ko otsailaren 4an honako agiri hauek aurkeztu zituen, errekerimenduari erantzunez:
  - Eskaera eta foru aldundiko presidentearen baimena; 1949ko abenduaren 2ko dekretuaren bidez, erabilera propiorako eta haren jabetzako lurretan – gutxi gorabehera luzera 700 m- bide partikularra eraikitzekeo, Tolosatik Beizamara doan errepede orokorrekeo 36. eta 37. Km-tik haren finkaraino.
  - Erregistro-idazpenaren ziurtagiri literala. Bertan, hizpide dugun finkari dagokionez, (...) izeneko lurretik “Beizamatik (...) baserrira doan errepede partikularra igarotzen dela” dioen azalpena dago jasota. Halaber, titularren zerrendaren egiaztatgeria, hurrenkera kronologikoan aurkeztu du. Bertan,





errepide partikularren egoera eraiki zenetik aldatu gabe egon dela aipatu da.

6. 2009ko urtarrilaren 30ean, arkitektoak Elola auzoa Beizamara doan foru errepidearen 37. Km-arekin lotzen duen bidearen titulartasuna argitzeko txostena egin zuen. Horren harira, adierazi zuen azken 25 urteotan 700 m-ko bidearen tartea etenik gabe eta auzoko guztiek erabili dutela. Halaber, bidea mantentzeko diru publiko erabili dela egiaztatu da.
7. Udaleko osoko bilkurak, 2009ko otsailaren 25ean, hizpide dugun bidearen tartearen erabilera ikertzeko espedientea hasteko erabakia hartu zuen.
8. Udal idazkariaren txostena, 2009ko martxoaren 2koa, ikerketa-espedientearen izapidean jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa. Aplikatutako araudia adierazi ondoren, espedientea hastearen aldekoa da, tokiko erakundeari baitagokio haren ondasunak ikertzea.

2009ko martxoaren 12an eta 13an interesdunei erabakiaren berri eman zitzairen eta 2009ko martxoaren 24ko GAO-n argitaratu zen, 15 egun balioduneko epean espedientea aztertu eta, hilabeteko epean, aurreko epea amaitu eta zenbatzen hasita, alegazioak aurkez zitzen.

9. Berraztertzeko errekurtsua, 2009ko apirilaren 14koa. Horren bidez, erreklamatzailleak 2009ko otsailaren 25eko osoko erabakia balio gabetzat jotzeko eta ondorioz gabe uzteko eskatu zuen.

2009ko uztailaren 1eko osoko erabakiaren bidez, hizpide dugun bidearen tartearen erabilera ikertzeko espedientea hasteko erabakiaren aurka jarritako errekurtsua ez onartzea ebatzi zuen udalak, gaiaren mamia zuzenean edo zeharka erabakitzen ez duen izapide egintza izateagatik. Horrez gain, ez da babesik gabeko egoerarik jazo, interesdunak 2009ko maiatzaren 14an haren interesak defendatzeko alegazio-idazkia aurkeztu zuela kontuan hartuta.

10. Interesdunak emandako epean aurkeztu zuen 2009ko maiatzaren 14ko alegazio-idazkia, besteak beste, prozedurari buruzko alderdiak eta funtsezko kontuak planteatuta, zenbait agirirekin batera (bere garaian titulartasunari buruz aurkeztutakoez gain, Bidegoiango eta Beizamako alkate ohien testigantzak notario aurrean, nekazaritzako sektorearentzako laguntzen baterako planaren xedeari buruzko agiriak, etab.).
11. (...) baserriaren eta GI-3720 errepidearen arteko bidearen tartea erabilera publikotzat jotzeko eskatuz Bidegoiango auzokoek egindako alegazio-idazkia (idazki horrek ez dauka sarrera datarik; erreklamatzailleak aurkeztutako 2009ko uztailaren 3ko udal idazkariaren egiaztagiria haren aurrean udal bulegoetan, 2009ko ekainaren 19an, sinatu zela dioen arren).





12. Arartekoak Bidegoiango Udalari kexak planteatutako gaien berri eman ziezagun eskatu zion, gai horri buruz indarreko legezko arauak bereziki aipatu eta adierazi ditugun espedienteko aurrekariak aintzat hartuta. Hala, laburbilduz, honako hau azaldu genuen:

*“... el uso público municipal no es una categoría jurídica que se pueda predicar sobre bienes que no son de dominio público o, dicho de otra manera, es camino de uso público únicamente aquel cuyo suelo es público. Otro tanto podríamos decir de la posesión, ya que el artículo 70 RB prevé la facultad de recobrar por sí la tenencia de sus bienes de dominio público en cualquier tiempo, es decir recobrar lo que ya era suyo o lo que había poseído con anterioridad en concepto de dueño.*

*Cualquier otro uso sobre un camino privado tiene la consideración de servidumbre y, en este sentido, hay que tener en cuenta que las servidumbres continuas no aparentes y las discontinuas, sean o no aparentes, sólo pueden adquirirse en virtud de un título (artículos 532 y 539 del Código Civil)...”*

Bidegoiango alkateak hasierako informazio-eskaera horri erantzuna eman zion eta bertan adierazi zuen bistakoa zela erakunde honek inolako erreserbarik gabe erreklamatzailerak emandako bertsioa onartu zuela, administrazioak hasitako espedienteari balioa kenduta. Horrez gain, esan du honako hau aintzat hartu behar dela:

- Bidegoiango auzokoek bidea 20 urtetan inolako trabarik gabe erabili dute, Beizamara heltzeko biderik laburrena eta errezena delako. Izan ere, hala egiten ez bada, kilometro batzuetako bira eman behar da.
- Bertan, gainera, bidea hobetzeko eta mantentzeko lanak egin dira. Lanok diru publikoarekin ordaindu dira.
- Horregatik guztiagatik, bidearen izaera publikoa, behintzat, eztaibaida daitekeen gaia da eta ikerketa-espedientearen izapidea behar du, horren titulartasuna aurretik epaitu gabe.
- Arartekoak interesdunari babesteko eskubide guztiak ematen dizkion espediente bat hastean, espedientearen amaiera aurretik epaituta, esku hartzea ohiz kanpokoa dela dio.
- Espediente administratiboa osatzen duten agirien kopia bidali du, aipatutako azken txostenak barne hartuta.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egokitzen jo dugu hurrengo gogoetak zuri helaraztea:

### Gogoetak

1. Kexak hizpide dituen funtsezko gaiak jorratzen hasi aurretik, Bidegoiango alkateak egindako adierazpenak aipatu behar ditugu; alegia, erakunde honek,





egindako informazio-eskaeraren bidez, erreklamatzaileren bertsioa erreserbarik gabe onartu duela eta udalak hasitako espedienteari balioa kendu diola.

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak arartekoari dagozkion zereginen artean herri-administrazioen jarrerak eta egintzak ikertzea xedatzen du. Hori horrela, kexagileak unera arte bideratutako espedientearen zati handi baten berri eman zigun eta horren bidez lehenengo balorazioa egin ahal izan genuen, kasuan kasuko informazioa eskatzerakoan.

Bideratu genuen eskaeraren bidez udalari adierazitako gaiaren eta helarazitako idazkian azaldutako gogoeten gaineko balorazioaren berri emateko eskatu genion, eskuragarri zeuden agiriak eta izapideak aintzat hartuta; hau da, lehenengo analisi hori gaiari buruzko udal planteamenduarekin egiaztatze eskatu genion. Kexaren izapidea behar baino gehiago ez luzatze aldera, interesdunak aurkeztutako agirien bidez eztabaidaren alderdiak kokatzeko hasierako planteamendua egin dezakegu, tartean dagoen administrazioaren agiriak eta argudioak kontuan hartuta, jakinarazi zaigun gaiari buruzko azken balorazioa egin dezagun alde batera utzi gabe.

Bidegoiango alkataren erantzunak ez du egiaztatze hori burutzeko aukera ematen duen balorazio juridikorik egin. Izan ere, gaia eztabaida daitekeela eta ordenamendu juridikoak herri-administrazioei ikerketa-espedientea hasteko ahalemana ematen dietela baino ez du aipatu. Ahalmen hori, gainera, ez zen egindako informazio-eskaeran zalantzan jarri. Horren harira, esan behar da erantzun hori ikerketa-espedientea hasi eta urtebete baino gehiago igaro ondoren eta erreklamatzailak haren jabetzakoa dela uste duen bidea konpontzeko lanak egiteko bideratutako baimen-eskaera egin zenetik ia urte eta erdi igaro ondoren jaso dela. Azken eskaera hori eten egin zen ikerketa-espedientearen ondorioz. Horrez gain, jasotako agirien arabera, espedientea 2009ko uztailetik geldituta dago.

Bidegoiango Udalaren ustez, erantzun horrekin gure eskaerari erantzuna eman dio. Aipatu erantzunari espediente administratiboa osatzen duten agirien kopia erantsi zaio. Horri buruzko aurretiko balorazioa ere egin behar da gaiaren funtsari buruzko gure gogoetak egin baino lehen.

2. Toki Erakundeen Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Araudiko 164. artikulua –azaroaren 28ko 2568/1986 E.D. – honakoa ezartzen du:

*“1. Constituye expediente el conjunto ordenado de documentos y actuaciones que sirven de antecedente y fundamento a la resolución administrativa, así como las diligencias encaminadas a ejecutarla.*

*2. Los expedientes se formarán mediante la agregación sucesiva de cuantos documentos, pruebas, dictámenes, decretos, acuerdos, notificaciones y*





*demás diligencias deban integrarlos, y sus hojas útiles serán rubricadas y foliadas por los funcionarios encargados de su tramitación.”*

Xedapen hori kontuan hartuta, espediente administratiboa jaso ez dugula ulertu behar dugu, aipatu dugun definizioaren arabera. Izan ere, aurkeztu edo udalean bertan egin diren agiriak egon badaudela eta espediente administratiboan jasota egon behar luketela badakigu. Horrez gain, ohartu gara espedientea ez dagoela modu korrelatiboan zenbakituta eta osatzen duten agiri guztiak ez daudela hurrenez hurren gehituta, alegia, hurrenkera kronologikoan. Aurrekoaz gain, adierazi behar da bitxia dela 2009ko uztailaren 3aren ondorengo agiri edo izapiderik ez egotea, ezta arartekoaren informazio-eskaeraren balorazio tekniko-juridikoa ere (horren inguruko faxa jaso dugunez, balorazio hori abokatuen bulego bati eskatu zitzaiola jakin badakigun arren).

3. Gaiaren mamiari buruzko aurreko gogoeta horiek guztiak egin ondoren, tokiko erakundeek euren ondasunen inguruan eskumen asko dituztela aipatuz hasiko gara. Hala, besteak beste, ikertzeko eskumena eta ofizioz berreskuratzeko eskumena, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 44.1. a) eta c) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Ikertzeko eskumen hori arautzerakoan, araudiko 45. artikulua xedatzen du tokiko korporazioek horien jabetzatik ondorioztatzen diren ondasunen eta eskubideen egoera ikertzeko ahalmena dutela, hori jasota ez badago, ondasun eta eskubide horien titulartasuna zehazte aldera. Ekintza ikertzaile horren baliatzea ofizioz erabaki ahal izango da, korporazioaren edo partikularren salaketaren bidez (araudiko 45. artikulua). Prozera bera erabiliko da edozein unetan jabari publikoko ondasunen edukitza berreskuratzeko, ikertzeko ekintza udal uziekin bat etorri ondoren (araudiko 71. artikulua).

Hortaz, ikertzeko ekintzarako eta, hala badagokio, edukitza berreskuratzeko dagokion ekintzarako behar den aurrekontua honako hau da:

- Hizpide dugun ondasuna eta eskubidea jabetza publikokoa *“izatea”*.
- Ondasunaren titulartasuna jasota ez egotea eta ikerketaren bidez titulartasuna zehaztea.
- Hizpide den ondasuna jabari publikoko ondasuna da, erabilera publikoari atxikita dagoela aintzat hartuta.

Jurisprudentziak, eskumen edo ahalmen horien baliatzea zehazterakoan, azpimarratu du espediente horiek edukitza-eskaerara hertsiki mugatuta daudela eta hori behar bezala egiaztatu behar dela jabetza administratiboaren erabateko frogarekin, auzitegi arruntetan sor daitekeen jabariari buruzko edozein jarduera desberdinduta. Hala ere, ezin da saihestu baliabide pribilegiatu horrek – benetako ekintza interdiktalaren baliokidea- premisa bat bete behar duela. Alegia, ikertutako ondasunaren titulartasuna jabari publikokoa *“izan dadila”*.





Gero, titulartasun hori zalantzan jarri ahal izango da eta jurisdikzio zibilaren arloko auzitegietan ebatziko da. Hala ere, ikertzeko eta edukitza berreskuratzeko ekintza honetan, honako hau hartu behar da oinarri: jabari publikokotzat jotzen den ondasuna da, herri-administrazioak haren jabetza zuen eta aipatu jabetza eteteko eskubidea ez duen norbaitek legez kontrako moduan eten du.

Teorian, udalak ekintza hori balia dezake, edukitza-egoera berrezartzeko (adibidez, auzoko guztiek bide bat ustezko mugarik gabe erabiltzea). Egoera horrek, ordea, ez luke beteko honako premisa hau: publikotzat jotzen diren ondasunak izateaz gain, partikularrak "*behar ez bezala*" eduki behar dituzte jabetzan eskuratu nahi diren ondasun horiek. Alegia, jabetza-egoera eten edo galdu behar da eta ekintza horren legez kontrako izaera behar da eskatzailearen aldetik, horretarako eskubiderik eduki gabe (AGE, 2001eko apirilaren 23koa eta AGE, 1994ko apirilaren 25koa).

Egia da halako prozedura batean egindako jabari publikoaren frogak ez duela zertan "biribila" izan, ondasunen titulartasunari buruzko kontuak jurisdikzio orden eskudunean jorratuko baitira. Hala ere, berreskuratu nahi diren ondasunen jabari publikoari buruzko gutxieneko uste juridikoa eta edukitza-eskaeraren inguruko erabateko froga amaitua egon behar dira.

Bestela esanda, pertsona batzuek erabiltzeak, baita mugarik gabe ere (espedientean frogatu behar diren kontuak), ez du esan nahi publikoa ez zena publikoa denik, usurpazio bidez eskuratzearen kaltetan izan gabe, zuzenbide zibilarri jarraiki; horretarako guztirako jarraitu behar den bidea eta izapide bidean dagoen prozedura desberdinak badira. Horrez gain, udalak gertakarien errealitatearen eta Jabetza Erregistroko idazpenaren artean kontraesanak daudela adierazten badu, kasu horretan jarraitu beharreko prozedura beste bat izango da.

4. Aurreko atalean azaldutakoa kontuan hartuta, jasotako agiriak aztertu ditugu eta, lehenik eta behin egiaztatu dugu ez dela zalantzan jarri bidea 1949. urtean egungo titularraren aurrekoaren jabetzako lurretan eraiki zenik, baita aipatu egoera Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoela ere, ordutik jazotako eskualdaketetan aldaketarik bideratu gabe. Hasierako egoera hori gaia aztertzeko garrantzi handikoa da. Izan ere, oro har, edukitza berreskuratzeko halako espedienteetako abiapuntuak aspalditik erabilera publikokoak izan diren eta partikular batek usurpartu nahi dituen auzo- edo herri-bideak izaten ditu hizpide.

2008ko irailaren 17ko idazkariaren txostenak ikerketa-espedientea eta, hala bazegokion, edukitza-berreskuratzeko espedientea hasteko aukera eman zuen aurrekaria da. Txosten horrek dio azken urteotan aplikatzen ari den ohiko udal irizpidea –ezagutzen den irizpidea (zein den zehatz-mehatz esan gabe) honako hau dela: bide publikotzat jotzen direla titulartasun pribatuko bideak, bertan





udaleko mantentze-lanak burutu ondoren, betiere, baimenarekin eta jabeak hala eskatuta. Zehazki, 1992. urteko asfaltatzeko obrak ditu hizpide, ezein alderdik bide publikoan aldaketa hori egin izanari buruzko egiaztagiririk utzi ez zituzten arren. Horren harria adierazi behar da ez dela horren inguruko eskaerarik egiaztatu.

Halaber, udalean udalerriko bide publikoen inbentarioa ez dagoela aipatu du eta, ondorioz, ezin da esan auzitan den tartea jabari publikokoa denik; hala ere, adierazi du asfaltzeko obrak 1992. urtean egin zirenetik finkakoak ez diren pertsonen erabili izana ezaguna dela. Horrez gain, udalak errepideko urteko mantentze-lanak egin dituen ikertzeko ekintzaren alde dago; aipatu errepidea ez dago seinaleztatuta, ezta hesituta ere, eta, aldi berean, beste bide publiko batzuekin komunikatzen da.

Antzeko zer edo zer dio udal arkitektoak 2009ko urtarrilaren 30eko txostenean, honako hau aipatzerakoan: izaera publikoa eta auzoko guztiek erabiltzen dutela aintzat hartuta egin ziren bide hori konpontzeko lanak, bai 1983. urtean baita 1992. urtean ere. Edozelan ere, azken 25 urteotan auzoko guztiek bidea askatasunez eta etenik gabe erabili izana hizpide duen ondorioa ez da aztertutako agirietatik ateratako adierazpena.

Aipatu planteamenduak honako hau izango luke oinarri -egiaztagiririk ez dagoen arren-, idazkariaren arabera: laguntza publikoak edota mantentzeko obrak lortu izanak esan nahi du bide partikularra publiko bihurtu dela. Hala, jarrera hori babesteko, 1983. urtean bidea konpontzeko Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundiaren eskutik jasotako 5.016.000 pezetako diru-laguntza aipatu da. Bertan, udalak auzokoen eta obra burutko zuen kontratistaren artean bitartekari-lanak egiteko konpromisoa hartu zuela jaso zen. Hala, onuradunek baterako kontu batean 1.500.000 pezeta sartu behar izan zituzten aurreikusitako aurrekontuaren guztizkoaren aldea ordaintzeko. Argudio-ildo berean, bide hori asfaltatzeko lanak aipatu dira. Lanok 1992. urtean burutu ziren eta horien kostua diru publikoarekin ordaindutako 10.000.000 pezetakoa izan zen.

Administrazioek eta, bereziki, tokiko administrazioak gizarte eta ekonomia arloko demandei erantzuna emateko sustapen-ekintza esanguratsua burutu dute beti. Oro har, diru-laguntza horien bidez adierazten da laguntzak eman direla, aurretik baldintza jakin batzuk betetzen direla egiaztatuta. Hala, onuradunak kasuan kasuko deialdian ezarritako betebeharrak materialak eta formalak bete behar ditu.

Horregatik, ez dauka zentzurik, 1983an eta 1992an onuradunak baldintza garrantzitsu hori betetzera behartu ez izanak, hau da, aipatu bidearen konponketa gauzatzeko zegokion titulartasuna udalari eman behar izatera behartu ez izanak.





Are gehiago, 1983. urteari dagokionez, onuradunen eta udalaren arteko agiri bat gauzatu zen, onuradunek lanen kontratistarekin hartzen zituzten konpromisoak bermatzeko, aurreikusitako diru-laguntzaren eta lanen kostua izango zenaren arteko aldearengatik. Agiri horretan ez da aipatu bidea udalari emateko beharrik.

Bestalde, txostenean idazkariak aipatutako irizpideari dagokionez, mantentze-lanak altxor publikoaren kargura gauzatu dituzten bide pribatu horiek bide publikotzat joko direla dionean, aipatzekoa da, jasotako agirien artean, osoko akordio bat dagoela, 1998ko azaroaren 25ekoa, bere baserrirako bidea asfaltatzeko partikular batek egindako eskaerari buruzkoa. Eskaera ukatu zen, bidea publikoa izan dadin, lehen asfaltatzea jabedunaren kargura izan behar delako, horren ondoren publiko bihurtzeko. Une horretatik aurrera, udalak hartu du mantentze-lanen ardura, zinegotzi batek aipatutakoaren arabera. Aipamen hori kasu zehatz bati buruzkoa da eta, nolana ere, erreferentzia 1992ko jarduera baino nahiko geroagokoa da, udal idazkariak erreferentzia gisa hartzen duena.

Era berean, ez dago jasotako agiririk, nahiz eta idazkariak urteroko mantentze-lanak aipatu, 1983 eta 1992an adierazitako lanez gain.

Aipatutako bidearen tartearen erabilera ikertzeko espedientea ireki zuen 2009ko otsailaren 25eko osoko erabakiak zera adierazten du:

*“De los antecedentes obrantes los corporativos consideran que se constata el uso público del camino y la existencia de uso público de un determinado bien justifica el ejercicio de potestades tales como las de investigación de ese uso público por parte del Ayuntamiento, legitimándole el derecho de ejercer dicha facultad de investigación de oficio de sus bienes (artículo 44.1.a) del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, y art. 4.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, **sin perjuicio de que en ningún caso, ello suponga negar la propiedad de D. (...), plenamente acreditada en la documentación aportada resultando ser dueño del camino en litigio por así constar inscrito en el Registro de la Propiedad de Azpeitia”.***

Beraz, udal erabakiaren abiapuntuan, aipatutako bideak titulartasun pribatua duela onartzen da eta, ildo horri jarraiki, hasieratik guztiz egiaztatutako partikularren edukitza-egoera liteke. Azalpen horrek arazo bat dauka, galdutako edukitza berreskuratzeko espedientearen bete beharreko premisa nagusiak huts egingo bailuke, ikerketa-espedientearen aldeko ebazpenaren ondorioz, izan ere, espedientea hasteko erabakiak berak aipatu ondasuna jabetza partikularrekoa dela onartzen du eta, beraz, udalak ez luke premisa bat beteko, alegia, jabetza publikoa galdu izana hirugarrenen legez kontrako ekintzengatik.





Gure ustez, aztertutako agiriak ikusita, erreklamatzailak ez lituzke beteko bidea behar ez bezala izateari dagozkion baldintzak, berariaz onartzen baita jatorrizko edukitza partikularra; gainera, bide hori ustez jabetza publikokoa denari buruzko gutxieneko uste juridikorik ez dago. Beraz, jabetza berreskuratuko da, hirugarren batek dagozkion jabetza erregistroan izena emana izan arren.

Partikularrari buruzko udal irizpideari jarraiki, zonaldeko herritarrek erabili izanagatik eta hainbat mantentze-lan altxor publikoaren kargura gauzatu izanagatik publikotzat jo zitekeela uste izateak ez dauka legezko inolako oinarririk, jabe-onuradunekin irizpide edo baldintza hori gauzatu dela jasotzen duen agiririk ez dagoelako, bide honetatik ondasun pribatu bat publiko bihurtzea onartu ahal izan gabe.

Egoera horrek bide partikular bat modu jarraian publikoki erabili izanagatik jabetza publiko gisa eskuratzeko beste biderik ote dagoen ikertzeraz bultzatuko liguke eta, alde bakarreko eskuratze hori eta bidea ondasun inbentarioan gaineratzeko prozesua espediente mota honen bidez bidera ote zitekeen aztertzeraz. Bere garaian egin genuen informazio-eskaeran adierazi genuenez, bide partikular baten gainean erabilera publikoko mendekotasuna ezartzeko titulu bat izatea beharrezkoa da, Kode Zibilaren 532. eta 539. artikuluen arabera. Kasu honetan, berriz, ez da baldintza hori bete, ez baitago horri buruzko agiri formalik.

Azkenik, udalak bide horren titulartasuna irabazi ahal izan ote duen azter genezake, Ondasun Araudiaren 8.4 c) artikulua zehazten duen eskuratze-preskripzio edo usukapio bidez. Halako eskuratzeak birtualtasuna izan dezan, ekintza formalik egin behar izan gabe, ondasuna erabilera edo zerbitzu publiko edo komunari lotu behar zaio, geldiarazpenik gabe hogeita hamar urtez eduki behar da, eta edukitza hori jabe gisa, publikoa, baketsua eta geldiarazpenik gabekoa izan behar da, Kode Zibilaren 1959. artikulua zehazten duen moduan. Udalak eskainitako datuak ikusita, kasu honetan ez lirateke legezko baldintzak beteko bidea usukapio bidez publikotzat jotzeko, izan ere, udal jarrerarentzat baldintza onenean egonda eta igarotako denbora kontuan izan arren, 1983. urteari buruz ariko ginateke, hau da, legez xedatutakoa baino epe laburragoa. Nolanahi ere, eskuratze modalitate hau, egiaztatutako erregistro-errealitatearen kontrako, ezingo litzateke edukitza berreskuratze prozeduraren bidez gauzatu, hasitako ikerketa-espedientearen azken xedea, alegia.

5. Administrazioaren eskumenak, besteak beste, jabari publikokotzat jotzen diren ondasunak defendatze aldera ikertzeko eta edukitza berreskuratze eskumena, ondare publikoaren defentsarako bideratzen diren pribilegiozko tresnak dira, baina ezin dira erabili ondare publikokoa ez den eta izan ez den ondasun bat eskuratzeko bide laster gisa, ekintza hori hainbat herritarren onurarako neurria izanagatik justifikatu arren.





Eskutan izan ditugun agirien arabera eta, egon litezkeen froga eta balioztapen tekniko eta juridikoak lortze aldera, tamalez lortu ez ditugunak, Bidegoiango Udala berriz ere ikerketa-espedientea izapidetzen hasi beharko zitekeela irizten dugu, ebatzi eta artxibatu arte, hemen azaldutako argudiaketa kontuan hartuta.

Gainera, arestian aipatu dugun moduan, bidean lanak egiteko erreklamatzailak aurkeztutako lizentziaren eskaeraren izapidetzea bertan behera utzi zuen udalak, bidea eztabaidagarritzat jo zuelako, eta horrexegatik eman zitzaion hasiera ikerketa-espedienteari. Hori guztia kontuan hartuta, aipatutako bidearen titulartasunari buruzko prozedura konpondu ondoren, udalak izapidetzeari berriz ekin beharko liokeela uste dugu.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### **16/2010 GOMENDIOA, ekainaren 30ekoa, Bidegoiango Udalari egina**

1. Dagokion izapidetzea egin ondoren, (...) baserria eta GI-3720 errepidearen artean doan bidearen erabilerari buruzko ikerketa-espedientea ebatz dezan.
2. Dagokionean, etena amaitu ondoren, aipatutako bidean mantentze-lanak gauzatzeko lizentziaren eskaera ebatz dezan.

